

BESTEREN IZENEAN

Ama hozten denean hozten omen da haurra eta ama berotzen denean berotzen. Amak neguko erropak jartzen dituen seme-alabek ere neguko jantziz ibili behar izaten dute. Eta alderantziz.

Hala da esaera. Eta halatsu gertatu ere ohi da. Eta ez hizketan ez dakiten haurrekin bakarrik. Baita hazixeagoekin ere.

Honelako zerbait gertatzen da gizartearen ere. «Herriak hala nahi du», «Herriak hala dio», «Herriaren kaltetarako da hori, beste hori, berri, Herriaren onerako...». Jende asko mintzo da Herriaren izenean.

Hizketan ez dakien haur jaioberriaren antzera hartu ohi da Herria. Izan ere hala izango da, behar bada. Isilik bait da. Ez du hitzegtien.

Galda diezaiogun behingoz hizketan badakien ala ez. Eta ez dakicela uste baldin badugu esan dezagun garbi behingoz, ez dakicela. Esan dezagun argi eta garbi ez daki hizketan, ezjakina da, ume bat. Amak umeari bezala esan diezaiogun, beraz, nik dut arrazoï eta nik agintzen dudana egin behar duzu. Baina ezjakintzat dugun Herri horren izenean ez dezagun ezer esan eta erabaki.

Hori horrela denik uste ez baldin badugu saia gaitzen herriaren berri jakiten. Herriak badaki hizketan. Hizketarako txanda utzi behar zaio. «Aita hain herritza izanik nola dira semeak hain isilik?» galdetu genion bati. «Hizketan ikasteko txandarik eta tarterik ez die utziko eta», erantzun zigun.

Herriak ez du komunikabideetan sarrerarik. Ez du gaurko gizarteari dagokion mintzabiderik. Beti bezala lagunartean, etxean, bidean doalarik, jolasean dabilenean, hitzegin ohi du. Tabernan, lantegian, pelotalekuan, kalean eta abarretan esaten duena entzun behar dugu. Langileek, nekazariak, dendariak, fededunek, fedegabeek, industrigizonak, gazteak, helduek, zaharrek eta abarrek zer dioten jakin behar dugu.

Mintzabiderik ez duen herri horrek zer nahi duen jakiteko beste biderik ez da gaurregun. Bestela norik berak nahi duena nahi duela herriak ere usteko du. Norbere edo norbere taldearen nahiak, usteak, ametsak, iritziak eta jokabideak Herriari ezarriko zaizkio.

Zuria denak gutzia zuri dela usteko du, gorria denak gutzia gorri, beltza denak gutzia beltz, eta abar eta abar.

Herriari berari utzi behar zaio hizketan ahal delarik. Herriaren abotsa ez da isil erazi behar. Denak batera, bullan, oihuka eta zalapartan ihardutea ez da ona. Are okerragoa denak isil erazatea.

Herriaren izenean eta ordez herri horrek horretarako aukeratu dituen gizonak bakarrik hitzegin dezakete. Hoiak ere Herriari berari utzi behar diote hitzegtien, erabakitzen eta lan egiten. Herriaren iritzia biltzen eta bistaritzen saiatu behar dute.

Herriak edo herriko gehienek nahi ez duten, onartzen eta oniritzen ez duten zerbait herri horri ezar ezarzte bortsakeria da. Herrian hazia ercin behar da, noski. Baina guk ercin gabe bildu nahi dugu edo erelindakoa erne baino lehen. Eta haziak ermetzen, landaritzen, loratzen eta aleak ematen hasterako denboralea behar du.

Hazia erretoko eskubidea eta erantzukizuna edonork du. Inori ez diogu eskubide hori ukatu behar. Baina Herriarengana fruitu bila abiatzen bagara dituen fruituak bildu behar dizkiogu. Eta sagarra ematen baldin badu intxaurra eman duenik ez dezagun esan. Adieraz dezagun garbi herriak eman duena.

Beste gutzia, herriaz baliatzea da, ez herria zerbitzea. «Herria, herria, esaten duten guztiak ez dute herria zerbitzen, herriaren borondatea egiten saiatzen direnak bakarrik baizik».

zeruko
ARGIA
EUSKALDUN ASTEROKOA

UGAL ETA ZABAL
EUSKALDUNON ASTEKARIA

Izen-deiturak _____

Kalea _____ Zenbakia _____

Herria _____ (Prob.) _____

Ekintzaleak eta masa erakundeak

Militanteak, ekintzaleak, denak militante izatea nahi luke. Badakigu, Jesukristo ere mundua sutan jartzera etorri omen zela. Militanteak bere inguruko denak sutan ikusi nahi lituzke.

Kultur lanetan ari denak, inguruko denak buruz behera kultur lanetan murgilduko lituzke gustoraena. Lan arazoetan diharduenak, denok fabrikara sarraraziko ginduzke, bere esku bagego. Bada, guziok esku bietan pipa banakin jarriko ginduzkeenik ere, oestean bezala... Berezkoa du militantiak isuri hau. Baina joera horrezaz gainera, planteamendu bat ere egon liteke, hotz-hotzean eginda, horixe eskatzen duena: alegia, jende guzia beti ernai jarri nahi lukeena, «txispaz harmaturik, bandera zabalik», gure Patroi Haundia omen dagoen bezala.

Posible al da hori? Egun batzuetarako, bai, dudarik gabe. Luzarorako, zailago dirudi.

Imposible denik ere, ezin esan liteke besterik gabe. Ez dakigu, nondik nora ibili beharko dugun. Eta etorkizun bidea nolakoa izango den, gerora ikusiko da.

Baina, oraindik oraingoz, berehalako batetan jende guzia su ta gar ikustekoak garenik, ez dirudi. Horixe komeni zaigunik ere, ez dago oso garbi. Eta, dena den, hortarako ahaleginak utzi GABE, beste bide batzuk ERRE urratzen saiatzeak dirudi arazoizkoena.

Militantzian sartu nahi duenak, baditu bere aukerak.

—oOo—

Baina gizonik gehienak, nahi badugu ta ez badugu, gizonik gehienak, gehienak bezalakoxeak dira. Egunko orduarik hoberean lanean sartu behar dituen horrek, patxada piska batetarako eskubidea ere badu, eta atse-denen piska baten premia ere baduenez gero, ez daduka batera ta bestera ibiltzerik. Ez eskatu horri, liberatu batek bezala joka dezanik. Eta gehien-gehienak halaxe daude.

Beste hori abogadua da. Edo midikua, edo injinadorea, edo biologoa, edo ez dakit zer. Horra beste hori: arrantzale, zapatarri, enfermera, parroko, baserriarri, irakasle, dendari. Bere zereginetan badaki gauzak nola dauden. Baina handik kanpora ez du gauza handirik ezagutzen. Erraz ikusten du, baserriaren edo osasun publikoaren problema, esate baterako, gizarte osoaren antolaketan barruan daudela. Gizarte osoari nolako soluzioa eman, halakotsua izango dela bere gorabeherena. Beraz, ez dadukala bere problemen soluzioan pentsatzerik, gizarte osoaren antolaketan pentsatu gabe. Baina «gizarte osoa» ez du ideia garbirik. Ez galdetu baserriarri, midizinarene sozializazioa nola egin, ezta midizina sozializatu behar al denik ere. Injinadoreak ez du historia ezagutzen. Biologoa gaizki dabil lege kontuan. Eta, jeneralean, zenbait eta espezialistago izan bat —ikasketengatik nahiz bizimoduagatik eta lanbideagatik— hainbat desgogarago sartuko zaizu, bere esku artekoak ez diren arazoetan. Politika, ordea, «gizarte osoa» antolatzeko artea alegia, ezagutzen ez ditugun arazoz beteta dago.

Horra, ba. Gure inguru hau langile aditu ta saiatzuz beterik dago. Eta langileok beren lantokian aritu nahi dute lanean, badakite ta, lan on batetan ari direla. Pedagogoa batek ez daduka jakin beharrik, industria kimikoa nola dabilen. Zapatarri batek nekez jakin lezake, zentral nuklearretaz zer eritzi: Kultur lanetako buruhausteak apenas ezagun ditzaiteke edozein langilek. Eta abar.

Guziok organizatzerik bagego, ordea. Alderdi baten barruan edo inguruan adibidez, guzior arteko informazio ta komunikazio sistema bat sortu ahal izango litzateke. Ikuspegi ta esperentzia ezberdinok in etorkizunaz orokarki planegin ahal izango litzateke. «Gizarte osoa» burubide batzuk hartu ahal izango lirateke, elkartzunean eta guzieren interesei begira. Hots, pentsamendu politiko bat eta programa politiko batzuk landu ahal izango lirateke.

Bestalde, injinadorea ta zapatarria bakarrik ez dago, midikua ta baserriarra, etc., bakoitza bere lehioan eta kondizio mugetan. Eskualde guziak, ez daude kondizio berdinetan ere. Aintzakotzat har ditugun diferentziok. Eta ezberdintasunok masa organizazio hortan, pentsamendu ta programa politiko horietan, sartuerarik izango badute, bistan da, pentsamendu ta programa horiek zabaltasun handikoak izan beharko dutela.

Militante sutsuari honelako burutazioak eta asmoak ez zaizkio bat-batean gustatuko. Denak militante gogor eta bero-bero bihurtu nahi bait lituzke, guzi hori derrotismo eritzioko dio. Asmuok «erreformistak» direla, esango dizu, erreformismoari dion erdeinu guziarekin.

Baina gogoan har dezagun, ez dela inoiz esaten, herriak hola-koxe organizazio bat baizik behar ez duenik, eta bestelakorik ere. Aitzitik, bestelakoak ez lirateke batera gutiagoko beharko.

Eta ezta ere, ez da esaten, masa organizazio batetarako pentsamendu ta programa horiek minimo kaskar eta ezdeus batetan gelditu behar dutenik, zinez deus egin nahi ez duen edonori. konzientzia lasaitzeko ta bere burua zuritzeko aitzakia emateko moduan. Jendetaria zabal horri ez gehiegi ta ez gutiegi eskatu beharko litzaiok.

—oOo—


Honelako asmoak ez dira gabetik goizera onartuko. Militanteari zaila egingo zaio, asmuotarra jartzea. Militante ez denari

ere, berea kostako zaio: militante harrigarri ta heroikoak, mugarik gabe sakrifikuak, mirestera ohituegirik gaude. Baina horixe lortu behar da, hain zuzen: jende guziok besteen mirestea hutsetik beren ekintza batetara pasa araztea.

Militantea, edonolako militantea, ez litzateke noski organizazio honetatik kanpora geldituko. Alderantziz, honelako erakunde batek aski zabal izan beharko luke. Bere radikalak eta moderatuak izan beharko lituzke. Eta militanterik gabe ez luke zentzurik izango. Militante molde diferentek daude ta hauxe izango genuke bat: herri aldean barritutik eragile.

Bestalde, jomuga ezin izan liteke jende guzia organizatzea: masa organizazio bat bai, baina guzi-guzienik gabe. Guzientzat erreferentzia bat jartzen duena, noski.

Joxe Azurmendi



zeruko
ARGIA

JABEA:
Nafarroa, Kantauri eta Argoko Kaputxinoek.
Suriada, Kale Nagusia, 50-1
Donostia, Okendo, 22
Telf. 41-95-88

Ondezkaria: Kaletano Ezelza Ituriza

IRPIDE SARIA:
Barruan 400 pezeta
Korro batasunetako herrietan 620 pezeta
Atzerrietako beste herrietan 480 pezeta
Airez Aldez aurretik galdetu

Salmenta (ala bakoitza) 10 pezeta

Moldiztegie eta Idazkolei:
«Gráficas Navasal»
A. Adoain, 1. IRUIREA
D. L.: NA. 80-1963